

## DIRU ITURRIA

Lehenik eta behin kontsumitzaileak zenbat eta nola ordaintzera prest dauden jakitea nahi dugu. Uste dugu bezeroak guk jarritako prezioarekin ados egongo direla eta ordaintzeko prest. Prezioa jartzeko, kontuan eduki behar ditugu hainbat gauza: Alde batetik, kartera bat dela bakarrik, baina beste aldetik produktu erreboluzionario eta erabilgarria dela. Horrez gain, diru-zorroa egiteko kalitate ona duten materialak erabiliko ditugu.



Gure produktua egiteko, diru-zorroa, txip kontagailuak eta geolokalizadoreak. Hori kontuan izanda, gure produktuaren azken prezioan eragina izango du.

Gure produktua kobratzerako orduan, ordainketa bakarrean egin daiteke, hau da, produktua erosterakoan produktuaren balio osoa ordaindu behar da, ezin izango da hainbat hilabetetan ordaindu. Erabaki hau bi arrazoiengatik hartu dugu, lehenengoa, diru-zorro bat delako eta ez dugu uste prezioa oso altua izango denik. Beste arrazoia nagusia "morosoak" ez edukitzeko da.

